

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren izena Aires del Sur da, eta gure helburua Espainiako kultura osoa Japonian ezagutaraztea da, publikoari esperientzia ahaztezina eta sentzoriala eskaintzen diona. Ez da kontzertu bakar bat edo dantza-saio bat soilik; gure ideia jendeak Espainia gehiago eta hobeto ezagutzea, musika, gastronomia, dantza, jantzi tradizionalak eta giro osoa batera bizi dezan.

Gure ustez jendeak ez du inoiz halako zerbait bizi izan Japonian, eta horregatik gure proiektua berezia eta berritzailea da. Bezeroak ez dira bakarrik ikuskizun bat ikusten dutenak; parte-hartzaile bihurtzen dira, tailerretan parte hartuz, dantza edo palmak ikasiz, eta baita gastronomia esperientzietan murgilduz. Horrek guztiak gure proiektuari balio handia ematen dio, beste ekitaldi edo proposamen arruntekin alderatuta.

Bezeroek dituzten behar nagusiak

1. Esperientzia paregabea eta parte-hartzailea: publiko japoniarrak eta bisitariak ez dute bakarrik ikustea nahi; esperientzia bizi nahi dute. Adibidez, Sevillanas ikastea edo paella bat prestatzeko tailerrean parte hartzea.
2. Ekitaldi pertsonalizatuak: Enpresa edo erakunde batzuk nahi dute ekitaldiak bere beharretara egokituta egon daitezen, hala nola ospakizunak, festa tematikoak edo ekitaldi korporatiboak.
3. Erraztasuna eta segurtasuna: Gaur egungo teknologiari esker, sarrerak eta merchandise online erreserbatu eta ordaindu ahal izatea funtsezkoa da, bezeroak erraz eta modu seguru batean parte har dezan.

Gure balioaren bereizgarriak

- Esperientzia osoa: Ez dugu soilik musika edo dantza eskaintzen; publikoa giro sentzorial batean murgiltzen da, janaria dastatzen du eta jantzi tradizionalekin argazkiak egin ditzake.
- Autentikotasuna eta modernitatea: Tradizioa errespetatzen dugu, baina ikus-entzunezko modernitatearekin konbinatuta. Horrela, jendeak zerbait tradizionala baina moderno bizi dezake.
- Parte-hartzea: Publikoa ez da pasiboa; tailerretan parte hartzen du, eta horrek esperientzia ahaztezina bihurtzen du.
- Berrikuntza Japoniako merkatuan: Oraindik ez daude horrelako ekitaldiak; beraz, publikoak esperientzia berria jasoko du.

- Internazionalizazio aukera: Ekitaldiak ez dira soilik japoniarrentzat; bisitari internazionalak ere erakarriko ditu, eta horrek proiektuaren ikusgarritasuna eta hazkundera handitzen du.

Zergatik aukeratuko gaituzte bezeroek?

Bezeroek gure ekitaldiak aukeratuko dituzte, esperientzia sentsozial osoa eskaintzen duelako, parte-hartzea ahalbidetzen duelako eta Japoniako merkatuan berritzailea delako. Gainera, tailer, merchandise eta ekitaldi pertsonalizatuak barne hartzeak, diru-sarrera anitzeko proiektua bihurtzen du eta horrek biziraupena eta hazkundera bermatzen du. Bezeroak ez du soilik zerbitzu bat erosten; esperientzia osoa eta ahaztezina jasotzen du.